

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga kobratzeko, hobari eskaerak egiteko eta zerga zorrak eta zuzenbide publikoko gainerakoak geroratzeko eta zatikatzeko epea luzatzea**

COVID-19ak eragindako aparteko egoera dela eta, alkatearen 141/2020 Ebazpenaren bidez luzatu egin dira TMIZ kobratzeko epea, TMIZrako hobariak eskatzeko epea eta zerga zorrak eta zuzenbide publikoko gainerakoak geroratzeko eta zatikatzeko eskaerak. Hona hemen indarrean egongo diren epeak:

- 2020 TMIZ kobratzeko epea: apirilaren 20tik irailaren 15era. Helbideratutako ordainagiriak 2020ko irailaren 11n kobratuko dira.
- 2020ko TMIZrako hobari eskaerak egiteko epea: 2020ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra.
- 2020ko zerga zorrak eta zuzenbide publikoko gainerakoak geroratzeko eta zatikatzeko eskaerak egiteko epea: dagokion zerga kobratzen hasi baino hamabost egun lehenagora arte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2020ko apirilaren 17a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**